

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2010eko URTARRILA


Euskal AEko industriako jarduera %4,8 jaitsi zen 2010eko urtarrilean

Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko abenduarekin alderatuta %2,3 jaitsi zen

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegi homogeenari dagokionez, Euskal AEko industri produkzioa %4,8 murriztu da 2010eko urtarrilean 2009ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %2,3 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko abenduarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hiruhileroko hazkunde zuzendua



(*) 2010eko urtarrileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2010eko urtarrileko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2009ko urtarrilaren aldean. Ekipoko ondasunak %10,1 jaitsi dira, Bitarteko ondasunak %2,4 eta Energia %5,3. Kontsumo-ondasunak %3,6 jaitsi dira; Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren prezioengatik (%-2,0) eta batez ere Kontsumo-ondasun iraunkorrenengatik (%-8,8).

Abenduaren aldean, 2010eko urtarrileko hil arteko aldakuntza negatiboa izan da industri sektore handi guztietan. Energiak %8,6ko jaitsi zen, Bitarteko ondasunak %1,4, Ekipoko ondasunak %1,3 jaitsi ziren eta Kontsumoko ondasunek %1,1 egin zuten behera, Kontsumo ondasun ez-iraunkorrek (%-2,6) izandako jaitsieraren eraginez, Kontsumo ondasun iraunkorrek gora egin baitzuten (%4,5).

Lurralde historikoei dagokienez, abenduko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Araban (%0,3); Bizkaian %4,1 jaitsi eta Gipuzkoan %8,1 jaitsi. Hil arteko hazkunde-tasa negatiboa izan da Araban (%-5,7) eta Gipuzkoan (%-3,0); Bizkaian aldaketarik ez (%0,0).

TAULA 2010eko URTARRILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	10Urt/09Urt	At/At-1 (1)	10Urt/09Abe	09Abe/09Aza
Indize orokorra: Euskal AE	-4,8	-4,8	-2,3	0,3
Araba	0,3	0,3	-5,7	2,1
Bizkaia	-4,1	-4,1	0,0	-0,5
Gipuzkoa	-8,1	-8,1	-3,0	0,1
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-3,6	-3,6	-1,1	-3,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-8,8	-8,8	4,5	-6,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,0	-2,0	-2,6	-2,4
Ekipo-ondasunak	-10,1	-10,1	-1,3	-2,9
Bitarteko ondasunak	-2,4	-2,4	-1,4	1,7
Energia	-5,3	-5,3	-8,6	6,0

(1) t urteko urtarrietik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp